

## BILBAO EXHIBITION CENTREKO APARKALEKUA ERABILTZEKO ARAUDIA

### 1. HELBURUA

BECeko aparkalekura txandakatze-egonaldien ordainketaren, online erreserben eta abonuen bidez sartzeko kontratazioaren baldintza aplikagarriak ezartzen ditu araudi honek.

### 2. APARKALEKUAREN ERABILERA

Aparkalekua pribatua da eta arauak derrigorrez bete behar dituzte BECeko aparkalekuan eta sarbideetan dauden bezero guztiek.

Erabiltzaileak konpromisoa du honakoa betetzeko:

- Zirkulazio-arauak eta aplikatu daitezkeen lege- edo arau-aginduak.
- Indarrean dagoen ibilgailuak aparkatzeko kontratua arautzen duen legea.
- Ibilgailua atera aurretik aparkalekua derrigorrez ordaintzeko.
- Aparkalekuko langileen jarraibideak edo karteletan edo bestelako gida-sistemetan ageri direnak.
- Ibilgailua itxita uzteko eta osagarri eta gailu erauzgarri ez finkoak bertatik ateratzeko. Lapurreta kasuetan BEC ez da erantzule egingo.

### 3. EREMUAK ETA APARKALEKURAKO SARBIDEA

BECeko aparkalekuak 4.000 plaza ditu 3 mailatan. Aparkalekuan baimendutako gehieneko galiboa 2,20 metrokoa da oro har, eta, adierazitako eremu jakin batzuetan, apur bat baxuagoa.

Aparkalekuak hiru sarbide ditu: A sarrera, B sarrera eta C sarrera. Argizko seinaleak daude sarbideetan, eta sarrera zabalik (kolore berdea) edo itxita (kolore gorria) dagoen adierazten dute. Halaber, aparkalekuak lau irteera ditu: bat iparraldean, bat ekialdean eta bi hegoaldean.

Maila bakoitzean hiru eremu daude koloretan:

- Eremu urdina 1 eta 2 pabilioien azpian dago eta iparraldeko eremuaren inguruan.
- Eremu laranja 3 eta 4 pabilioien azpian dago.
- Eremu berdea 5 eta 6 pabilioien azpian eta hegoaldeko eremuaren inguruan dago.

Aparkalekuen plazek ez dute ez erreserbarik, ezta segida espezifikorik ere, plaza bermatuta duten abonatuaren kasuan salbu, eta ibilgailuek iritsi ahala hartu ahal izango dituzten plaza horiek. Salbuespen gisa, une batzuetan mugak ezarri ahal izango dira zerbitzuaren beharreatatik edo ezaugarriengatik. Motozikletek baimendutako gainerako ibilgailuen baldintza berberak izango dituzte.

Txandakatze-ibilgailuen karga automatikorako aparkaleku-plazak helburu horretarako soilik erabili ahal izango dira eta BECek beretzat gordeko du kargatzeko beharrezko denboraren arabera erabilera mugatzeko eskubidea.

1. kokalekua C sarreraren alboan:

- Hargune bakarreko 3 karga-puntu monofasiko

2. kokalekua Metrorako oinezkoen irteeraren alboan:

- Bi harguneko 3 karga-puntu trifasiko
- Bi harguneko 3 karga-puntu monofasiko

3. kokalekua A sarreraren alboan:

- Bi harguneko 3 karga-puntu trifasiko
- Bi harguneko 3 karga-puntu monofasiko

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuari buruzko informaziorako eta kontsultak egiteko hau da ibilen telefono-zenbakia: 94 612 30 40.

Mugikortasun urriko pertsonentzako plazetan mugikortasun urriko pertsonentzako baimen administratibo berezia duten eta hala egiaztatzen duten pertsonak soilik aparkatu ahal izango dute. Egiaztagiria ikusgarri egon beharko du ibilgailuaren haizetakoan aparkatuta dagoen bitartean.

#### 4. ORDUTEGIA

Gutxi gorabeherako ordutegiak\*:

- I Gandetik ostegunera: 05:00etatik 00:30era.
- Ostiraletan: 05:00etatik 3:30era.
- Larunbatetan: 05:00etatik aurrera. Gauean ez da ixten (ordutegi jarraitua).

\*Ekitaldi bereziak dauden egunetan luzatu daiteke. Aldaketen menpe dago.

#### 5. TARIFAK

Aparkalekuaren txandakatze-tarifa 2,6 eurokoa da lehen orduan, 1,4koa gainerako orduetan eta gehienez ere 18 euro dira eguneko. Sarbideetan ageri dira tarifak.

Hauek dira ordaintzeko moduak:

- **Txandakatze-egonaldiak kutxazainetan ordaindu beharko dira** aparkalekutik atera aurretik.
- **Online erreserbak** BECen webgunearen bitartez egingo dira:  
<https://bilbaoexhibitioncentre.com/eu/parking>
- **Abonuak** sartzeko baldintzen arabera kontratatuko dira erosketa-prozesuan adierazitako egunetarako. BECen eskumena da titulu horien jabe izateko baldintzak zehaztea.
- Erabiltzaileak kontratatutako alditik kanpo aparkatzen badu ibilgailua, aparteko denbora kobratuko zaio indarrean dauden txandakatze-tarifen arabera.

#### 6. APARKALEKUAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA

##### Txandakatzerako txartela

BECeko aparkalekura sartu ostean:

- Sistemak sartzeko txartela emango dizu sarreran ibilgailua hauteman ostean.


- Txartela hartu eta gorde egin beharko duzu **ibilgailua atera aurretik kutxazainetan ordaintzeko**.

- Erabiltzaileak aparkalekua erabiltzeari utzi arte gorde beharko du txartela, zerbitzuaren ziurtagiria baita.

- Ibilgailuek ondo aparkatu beharko dute ibilgailu-mota bakoitzerako plazetan, dagokion plaza mugatzen duten bide-seinaleen barruan.

- Egonaldia amaitu eta aparkalekua ordaindu ondoren, sistemak ateratzen utziko dizu.

- Jazoera edo anomaliaren bat egonez gero, erabili interfonoak edo joan -1 sotoan, eremu urdinean, iparraldeko irteeraren alboan dagoen aparkalekuko garitara.



- Erabiltzaileak kortesiazko tarte bat izango du txartela atera ondotik aparkalekutik irteteko.

- Kutxazainean ordaindu eta gero kortesiazko tartea igaroz gero, erabiltzaileak berriro joan beharko du kutxazainera indarrean dauden tarifen arabera dagokion egonaldiaren luzapena ordaintzeko.

- BECeko langileen segurtasun-arrazoiak direla eta, aparkalekuko erabiltzaileari eska diezaioke te aparkalekuko txartela edo abonuaren identifikazio-txartela erakusteko.

### Online erreserba

Aparkalekuko plaza <https://bilbaoexhibitioncentre.com/eu/parking> webgunearen bidez erreserbatuko da.

Erreserbaren ostean, mezu elektronikoko bat bidaliko zaio zerbitzuaren funtzionamenduaren gaineko informazioarekin.

### Abonatuak

Abonua duten bezeroek BECeko arrazoi funtzionalak eta operatiboak direla eta esleitutako plazak erabiliko dituzte.

Abonu-txartela galdu edo hondatuz gero. Erabiltzaileak interfonoaren bidez deitu beharko du edo aparkalekuko kontrol zentrora joan beharko du jakinarazteko. Enpresaren kanpoko arrazoiak direla eta txartela erabiltzen ez bada, egonaldia indarrean dagoen ordu-tarifaren arabera ordaindu beharko da.

Derrigorrezkoa da abonu-txartela eramatea ibilgailua aparkatuta dagoen bitartean. Aparkalekura sartzeko eta irteteko erabiliko da.

Abonu bakoitzak ibilgailu bakarrarentzat balio du.

Abonuaren kontratua amaitzean edo baliogabetzean, bezeroak ibilgailua atera beharko du.

Abonudunak abonua betetzen ez badu, BECek eskubidea izango du abonua baliogabetzeko, eta bezeroari idatziz jakinaraziko dio.

## 7. METRO BILBAOKO DISUASIOKO APARKALEKUAREN ZERBITZUA

Informazio gehiagorako:

<https://www.ctb.eus/eu/aparkalekuak>

## 8. ERANTZUKIZUNAK ETA ARAU HAUSTEAK

Erabiltzaileak finko ez dauden osagarri erauzgarriak kendu beharko ditu, enpresa ez baita horiek ordezkatzeko arduratuko. Halaber, enpresa ez da erabiltzaileak ibilgailuaren barruan dituen salgaien, objektuen edo gauzen erantzule egingo.

BECek erabiltzailearen zein ibilgailuaren jabearen aurrean erantzungo du indarrean dagoen Ibilgailuen Aparkalekua Arautzeko Legea osorik edo partzialki ez betetzeagatik eragindako kalte-galerengatik.

Erabiltzailea izango da aparkalekuaren barruan ibilgailua gidatzeko dituen betebeharrak osorik edo partzialki ez betetzeagatik edo trebetasun faltagatik eragindako kalte-galeren erantzulea BECen eta gainerako erabiltzaileen aurrean. Halaber, gertakariak berehala eta aparkalekutik atera aurretik BEC-i jakinarazteko betebeharra izango du.

BECek ez du beste erabiltzaile batzuk edo hirugarrenen eragindako kalteengatik erantzungo.

Aparkalekua ordaintzen ez bada edo erabiltzaileak erabileraren arau-hauste larria egiten badu, BECek beretzat gordetzen du ibilgailu horri etorkizunean sarbidea blokeatzeko eskubidea. Blokeatutako ibilgailuaren erabiltzaileak aparkalekua erabili nahi izanez gero, isuna ordaindu beharko du.

## 9. ERREKLAMAZIOAK

Bezeroak erreklamazioak aurkeztu ahal izango ditu aparkalekuko garitan bezeroentzat eskuragarri dauden araututako eredu bidez edo [parking@bec.eu](mailto:parking@bec.eu) posta elektronikoaren bidez

## 10. HARREMANETARAKO

Helbide honen bitartez: [parking@bec.eu](mailto:parking@bec.eu)

## **11. ARAUAK ALDATZEA**

Arau hauek aldatu ditzake BECek aparkalekuak hobeto funtziona dezan beharrezkoa iruditzen bazaio.